

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko urriaren 26a / 559. zenbakia



Dena prest kirola egiteko

MUSAKOLAKO KIROLDEGIKO BERRITZE LANAK BUKATUTA

ARAMAIO
Txirritola
GAIA
San Martineko organoa
konpondu dute /20
BOTEPRONTOAN
Arantza Ozaeta eta
Divina Arriolabengoa /21
GIZARTEA
Erretiratuen Eguna /21

ORAIN ETA HEMEN: ORDENANTZA FISKALAK/7 • KIROLAK: MONDRAREN LEHENENGO GARAIPENA/10

San Felipe Apostol

Etekinak lortzeko asmorik ez du eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Saileko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emandako elkarte da.



Gaur egungo Zuzendaritza Batzordearen zenbait kide: Jesus Agirrebeña, Jesus Telleria, Kontxi Bedia, Maximino Andres, Alberto Ojanguren (maiorala), Jesus Mari Arizmendiarrrieta (lehendakaria), Jose Ignacio Elortza (idazkaria), Iñaki Elortza eta Jose Lujs Untzueta (diruzaina).

Eratze eguna: 1898.eko apirilaren 13a.

Bazkide kopurua: 12.000

Sarrerako ordain sariak

40 urte baino gutxiagokoak	Sarrera dohainik
41-50	12.000 pta.
46-50	20.000 pta.
51-55	30.000 pta.
56-60	45.000 pta.
61-65	65.000 pta.
66-70	90.000 pta.
70 urtetik gorakoak	125.000 pta.

Oharra: Kuota hauek 40 urtetik gorako guztiengan dute eragina, nahiz eta titularrak, ezkontideak edota onuradunak izan.

Urteroko ordain sariak

Titularrak	2.750 pta.
Ezkontideak	1.750 pta.
Onuradunak	1.100 pta.

Eskaintako zerbitzuak

Hildako bazkidearen familiari gastu hauetan lagunduko diogu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan egin beharreko lekualdaketak.
- Hilkutxa.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoak jatzeko lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediki ziurtagiria.
- 60.000 pezetako diru laguntza hildako bakoitzagatik.
- Heriotza EAetik edo Nafarroatik kanpo gertatzean, 600.000 pezetarainoko gastuak ordainduko dira, beti ere, ondorengo baldintzak betetzen badira.
 - Egindako gastuen frogagiriak ekartzea behar-beharrezkoa izango da eta frogagiri hauek faktura ofizialen orijinalak izatea eskatuko da.
 - Erabilitako zerbitzuak (hilkutxa...) San Felipe Apostol Elkarteak eskaintzen dituenen antzekoak izan beharko dira.

Bazkide batek San Felipe Apostol Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuei uko egin eta beste ehorztetxe batengana jotzea erabakiko balu, 85.000 pezetako uko bat eskatzeko eskubidea izango du.


Arduradunak: Alberto Ojanguren, Kontxi Bedia
Gipuzkoa Etorbidea, 39, 1 C • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 82

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu ARRASATE PRESS barrixe?



JOSEBA ISAZELAIA
Langillie

Ondo pentsetan jat. Egunkari formatuen beste zera bat dauko. Atal barrixek ere badauko, beti hobeto, baita Aramaixoko kontuek be.



LOPE GARCÍA
Jubilaue

Oso ondo pentsetan jat. Aurrekue oso ohikue zan, baiñe oin formatua hobetu dala uste dot. Aramaixoko kontuek ekartie be ondo pentsetan jat.



OLAIA ERRASTI
Ikaslie

Nahixago neuen aldizkari formatuen zanien, egukarixen ez jatelako gustetan. Bestela, sail barrixek ondo ikusten dittut, baita Aramaixo sartzie be.



JUANITA FUNDAZURI
Jubilaue

Ondo pentsetan jat aldaketie. Gehixago gustau jat barrixe, hobeto entendidu eta ikusten dotelako, erretratuek handixagoek die-lako...



IHINTZ BENGOA
Langillie


Iguel, ohittura faltagatik izengo da, baina gehixago gustetan jat oin artekue, erretratuek haundixek badie be. Biherbada, denborakin ohittuko gare.



NAGORE LLODIO
Lanbakue

Lehengo formatue, aldizkarixena, gehixago gustetan jat. Bestela, edukixetan konpletuago dagoela uste dot. Arrasateko barrixek nahixago dittut.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOEN ABIADA. Ezagun da jende asko zoroen moduan ibiltzen dela errepideetan abiada handian, bai kanpoan zein herritan bertan ere. Hori guztia, "errepide txarrak" ditugula eta azkar joan ezin daitekeela esan ohi duten arren. Eskerrak! Hona hemen, horren erakusle, aste honetan Eroski ondoko biribilean izandako istripuaren irudia. Ustez, auto horren gidariak ez zuen biribilik ikusi!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Ibai-Arteken batzarra

Hirigune historikoa oinezkoendako jarri dutela-eta, Ibai-Artek batzarra deitu du martitzenerako.

KIROLA /12

Zaldibarko taula berria

Zaldibarko gorabeherak jakiteaz gain, emaitzak eta asteburuko partiduak.

ZAHARRAK BERRI /17

Zahartzaroko demenziak

Zahartzaroko demenziaren eta Alzheimer gaixotasunaren gainean ikastaroa egingo dute Saiolanen.

ASTEKODATUA

%4

ZER GAK %4 IGOTZEA PROPOSATU DUTE

Iazko abuztutik aurtengo abuztura arteko Kontsumo Prezioen Indizearen arabera izango litzateke zergen igoera. Atzo landu zuen Udaltzatarrak, eta oraindik ez dugu emaitzaren berri.

BESTEKEKESANA

“Gipuzkoako kutsatua den Deba ibaia berreskuratze-lanak bukatzeko zain dago, zertarako? Eraso berri bat jasaten ari da: Aldundiak Epele eta Elorregi bitarteko obretan bi meandrotan aldatu du ibaiaren ibilgua, eta ondoen kontserbaturiko zuhaitzi bat suntsitu. GI-627 errepiderako proiektaturiko konponbideak bihurtu du zuzentzea du helburu, atal horretan 60 Km-ko abiadura hartzeko, eta horrek Deba ibaian bi mozketak egitera eta galtzada zabaltzera behartzen du. Aldundiak EKOSi enkargatu dio inaktuaren eragina neurtzea. Azterketa horretan ez dira jarraibideak aztertzen, egiten den gauza bakarra da inaktuak azpimarratzea”

MIKEL OLABE
EUSKALDUNON EGUNKARIA/01-10-18

HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



Sua gasolinaz amatatu nahi izatea

A lde batetik, begibistakoa zena, eta bestetik, sumatzen zenaren berri jaso dut bi alde desberdinetatik; inor gutxi eztabaidan jartzen duen Epele eta San Prudentzio arteko bidearen konpontze lanei buruz ari naiz.

Begibistakoa zena, inguruko landarediaren balioa; horren harira, biologo lantalde batek Arrasateko landarediari buruzko ikerketa egin zuten, eta ondorioztatu dute inguruko haltzadia Arrasateko biodibertsitate aberatseneko lekua zela. Diputazioaren neurri zuzentzaileak, eta oraingoz ikusten dena, belarra erein dutela, lehengo errepide lurrez estali dutela, eta gero zuhaitz batzuk landatu dituztela: hiruzpalau espezie, lehen, 50 baino gehiago zeudenean.

Sumatzen zena, ingurumen legeak ez betetzea (ilegala?); Eusko Jaurlaritzaren ibai eta

erreka ertzen antolamendurako jarraibideek argi esaten dute "uren ibilgu naturalari ez eragiteko irizpideek beste edozeinen gainetik egon behar dutela"; eta era berean, zonaldea "balio handikotzat" hartzen du. Bada, administrazioak berak, kasu honetan

“Eta hori guztia zertarako? Bukatu eta hurrengo egunean kolapsatuta dagoen obra batek zezentzu du”

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aipaturiko Epele eta Elorregi bitarteko obretan bi meandrotan aldatu du ibaiaren ibilgua, eta ondoen kontserbaturiko zuhaitzi bat suntsitu.

Eta hori guztia zertarako? Bukatu

eta hurrengo egunean kolapsatuta dagoen obra batek zezentzu du? Hamar urte barru beste errepide bat egin beharko da? Bergararik Arrasatera azkar heltzea lortuz gero, Arrasaten ordu erdi aparkatzeko? Ez da gauza bera sua gasolinaz amatatzen saiatzea edo zirkulazioari errepide gehiago ematea?

Olandixoko tunela, astopista, AHT... noraino?

Arrasate

Otalora Lizentziaduna z/g
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla,
Izaskun Bolinaga,
Natali Martinez
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGÉ-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.000 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioiko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 26**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 27**
Zabala, Zarugalde 42: 943 77 16 30
- DOMEKA, 28**
A. Ruiz, Maala 31. 943 79 1409
- ASTELEHENA, 29**
Morales, Araba etorbidea 17. 943 79 18 65
- MARTITZENA, 30**
A. Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 31**
M.F.Azkoaga, Iturriotz. 943 79 12 39
- EGUENA, 1**
M. Corcuera, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa. 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburu eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIARI**
Gipuzkoako ambulantiak. 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskarak)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskarak)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskarak)
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskarak)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

HURRENGO EGUNEKO PILULARI BURUZKO HITZALDIA

Udaleko Sexologia Zerbitzuak, Emakume Kontseiluaren laguntzarekin, zenbait berbaldi antolatu ditu hurrengo eguneko pilulari buruz. Bigarren berbaldia azaroaren 8an, egunean, egingo da Udaleko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Medikuntzaren ikuspuntutik jorratuko du gaia Alfredo Otalora ginekologoak.

ZIRKOA ARRUENAN

Arruena parkean, Eroski ondoan, Holiday zirkoa izango da asteburuan, egubakoitzetik domekara arte, biak barne. Horrez gain, zirkuak berak zooa ere badauka eta gonbita egin du berau bisitatzeko.

LOGROÑORA IBILALDIA

Uribarriko zahar egoitzako partaideek Logroñora ibilaldia antolatu dute azaroaren 7rako. Argoncilon egingo dute bazkaria.

BIZIKLETA MARTXA

Gazte ekimenak bizikleta martxa antolatu du Arrasaten zehar urriaren 27rako, zapaturako, *Pedalak jira bira presoak herrira* lelopean.

AEDrenAGENDA

PERRETXIKO IKASTAROA

AEDk perretxiko ikastaroa antolatu du azaroaren 7 eta 8rako, 19:00etatik 21:00etara. Hizlaria Arantzadi zientzia elkarte mikologia saileko Jose Mari Zapiain izango da. Izena ematea 1.000 pezeta izango da, 800 pezeta ikasle eta langabeendako.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN


Iturripeko kiroldegia inauguratu dute

Eli Galdos Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiak, Xabier Zubizarreta alkateak eta Udaleko beste hainbat ordezkariak Iturripeko kiroldegia inauguratu zuten. Dantzariak aurrekua dantzatu eta gero, diputatuak eta alkateak berba egin zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txoliñe"



Pertsona berritsu eta kaskariñe (emakumeen gainien batez be).

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jose Mari Urizar Arrasate Irratian

Datorren martitzenean, hilaren 30ean, Jose Mari Urizar zinegotzia etorriko da Arrasate Irratira, 10:00etan. Jose Mari Urizar zerbitzburua da, eta sail horrek hainbat lan egin ditu azkenaldian. Gainera, zenbait lanek zeresana eman dute, esaterako, erdialdea oinezkoendako egiteak. Horren eta beste gai batzuen gainean galderak egingo dizkiogu. Eta entzuleek ere aukera izango dute galderak egiteko, 943 71 17 31 telefonora deituta.

Asteko errepassoan, Patxi!!!!!!!

Euskaltelen azken iragarkiak izugarritzko arrakasta izan du. Nork ez du Patxiren gaineko iragarkiaz barbarik egin. Iragarkia Dimension Marketing Directo enpresak egin du, Euskalteleko hiri barruko deiak iragartzeko. Iragarkia hizpide hartuta elkarrizketa egin diogu enpresako arduradun bati, Mikel Agudori, eta hizketaldi hori eskainiko dizuegu asteko errepassoan. Horrez gain, Virginia Imaz pailazoari egindakoa ere entzungai izango duzue.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 10	8 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 12	26 °C
ASTEKO EURIA (L/m ²)	15 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 17	26 °C	12 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 18	25 °C	9 °C	2,1 l/m ²
Egubakoitza, 19	20 °C	13 °C	10,7 l/m ²
Zapatua, 20	20 °C	8 °C	1,2 l/m ²
Domeka, 21	23 °C	11 °C	- l/m ²
Astelehena, 22	20 °C	11 °C	- l/m ²
Martitzena, 23	20 °C	10 °C	0,6 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a
- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
- EGUENA**
21:00 Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:50 Asteko elkarrizketak
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Trefasako aparkalekua irekitzeko eskaera

Arrasateko udalbatzarraren azken batzarrean erabaki zuten Mondragon Unibertsitateari Trefasako aparkalekua herritarrei irekitzea. Trefasako aparkalekua Mondragon Unibertsitatearena da, eta askotan ia hutsik egon arren, Uribe auzoan bizi diren arrasatearrek ezin izan dute erabili. Arrasateko udalbatzarrak datozen egunotan egingo dio eskaera Mondragon Unibertsitateari. Bestalde, Fagor Elektronikak Udalarari eskatu zion Eskola Politekniko atzeko bidea bi noranzkoko izatea, baina Udalak ez zuen onartu.


Arrasatearrak Nafarroa Oinez-era

Joan den domekan Lodosa eta Sartagudan ospatutako Nafarroa Oinez arrakastatsuan jende ugari egon zen, 125.000 pertsona inguru. Asko eta asko ibarretik joan ziren, eta Arrasatetik autobilez joan zirenez gain, Arizmendik bost autobus bete zituen. Nabarmendu beharra dago, denek Nafarroa Oinez-i babes eman bazioten ere, horietako bi autobus Batxilergoko eta Heziketa Zikloko boluntarioz beteta joan zirela. Eta haiek txosnetan, materiala saltzen, eta abar... lan polita egin zutela.

Zirkulazio ezbeharrak errepideetan

Urriaren 18an, eguenean, Gipuzkoa etorbidean auto batek 64 urteko emakume arrasatear bat harrapatu zuen eta Eskualde Ospitalera eraman zuten zauri larriekin. Istripuaren ondorioz, auto ilara luzeak izan ziren etorbide berean.

Bestalde, urriaren 24an, istripu txiki bat gertatu zen Maxi Eroki pareko biribilean. Automobil batek talka egin zuen biribilaren kontra, eta txartel guztiak apurtu zituen. Udaltzainen ustetan, autoak alde egin zuen berehalaxe.



UDALAK CASINOREN EGOITZA EROSI DU

Joan den asteko Gobernu batzordean Udalak adostu egin zuen Erdiko kalean kokatuta egon den Casino gastronomia elkartearen egoitza erostea, eta eraikina bera ordenaziotik kanpo utzi zuen. Gastronomia elkartearen batzarrak, ordea, egoitza berria izango dena erosi du Iturriotz kalean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Nodoa edo diskurtso bakarra

Batzuek diote orokorrean guztia aldatuz doala, baina nik, egia esan, askotan zantzak izaten ditut. Zer esanik ez, adibidez, aste honetako kontu larri bi jakin eta gero. Batetik, Manuel Fraga hilezkorrak Galiziako hauteskundeetan berrigaraipen itzela izan duela jakiteak. Frankoren izpiritu beraren ispilu den Fragak

PPren makillaje saiakerari -besterik ez- uko egiten jarraitzen dio, hori baino irudi zaharkituago eta "nodo"aren traza handiagoa duenik ez dago-eta.

Eta bestetik, presondegiatan tortura kasuak gertatzen ari diren zalantzarik balego, Torturaren Aurkako Taldeak Iratxe Sorzabalek sufritu duena jakitera eman izanak oilo ipurdia jarri digu bati

baino gehiagori. Hark sufritutako torturen erakusle argazkiak dituzte, eta hedabideei eskaini dizkiete. Torturaren testigantza hain argi erakusteak EAEko gobernuaren nolabaiteko erantzuna sortarazi du -ikus behar norainokoa-, hala eta guztiz ere, komunikabide gehienek uko egin diote horren berri emateari. Lotsagarria!!

ASTEKO IRUDIA



JULEN IRIONDO

KIROLDEGI BERRITUAREN INAUGURAZIOA

Iragarritako aldaketa bete egin da azkenean. Joan den egubakoitzean, aldizkari itxurako azkeneko ARRASATE PRESS jaso zenuten. Hamahiru urtean Oñatiko Gertun inprimatu izan da, eta orain, Iruñeko errotatibatik egunkari formatura aldatuta heldu zaigu. Eta, berritasun moduan, Aramaio-

ko berriak ere jasoko ditu. ARRASATE PRESSek bezala, ibarreko beste aldizkariak ere itxura aldatuta izan dute, formatuan eta maiztasunean. Aurkezpen berezia egin zuten Arrasateko Mondragon hotolean, eta erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten. /ARRASATE PRESS

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B ¥ ARRASATE ¥ Tel.: 943 77 16 31

KIROLA/ Musakolako kiroldegiko lanak bukatu berri dituzte, hortaz, hemendik aurrera ez da inongo eragozpenik izango kirola egiteko

Ehun eta laurogeita bost milioi behar izan dira Musakolako kiroldegia berritzeko

XABIER URZELAI

Hamar hilabete igaro eta 185 milioi gastatu ondoren, Arrasatek bere neurriko kiroldegia dauka ostera ere. Aldaketak nabarmenak izan dira, eta instalazioak berriitu eta egokitzeaz gain, zerbitzu berriak ere eskainiko dira.

Musakolako kiroldegia goitik behera berriitu dute, eta orain itxura bikaina dauka. Orain dela hamar urte lan batzuk egin zituzten kiroldegian, baina Diputazioak ez zuen diru larregirik eman, eta ez zen gauza handirik egin. Oraingoan, aldiz, aldaketa nabarmenak izan dira, eta hobekuntzak ere aipagarriak dira.

Kiroldegia berritzerako orduan, bi lehentasun izan dituzte: alde batetik, igerilekuko aldagelen egoera nahiko kaskarra zen; erabiltzaileak behin baino gehiagotan kexatu izan dira aldageletan hotz egiten zuelako, eta hori gutxi balitz, hai-ze-lasterrak ere izaten ziren. Horrez gain, arropak gordetzeko lekua udan bakarrik erabiltzen zenez, leku hori hobeto aprobetxatzeko beharra ikusi da. Medikuek eta masajistak aldagelen ondoan zeukaten euren kontsulta, eta hori ere ez zen leku aproposa.

Bestalde, goiko solairuan, lehenago taberna zegoen tokian, orain ez zegoen ezer, eta metro koadro horiek aprobetxatu egin behar ziren. Azken baten, erabilerarik ez zuen leku asko alferrik galduta egoteaz gain, zerbitzu berriak eskaintzeko leku beharra zegoen.

EGIN DIREN ALDAKETA NAGUSIAK

Kiroldegira sartu eta begi-bistan dagoen lehenengo aldaketa sarrerakoa da. Harreragunea ez dago lehenengo lekuan, eta orain, badirudi sarrera handiagoa dela. Esan dugun moduan, igerilekuko aldagelak berriitu egin dituzte, eta medikuaren eta masajistaren kontsultak bigarren solairuan daude orain.

Era berean, goiko solairua nabarmen aldatu dute. Komun berriak izateaz gain, beste gimnasio bat egin dute, aurreko biak ez ziren-eta nahikoa gimnasia erritmikoa, aerobica eta makinatan ariketak egiteko. Orain arte zegoen beste arazo bat hauxe zen: saunatik barruko igerilekura joateko kiroldegi osoa gurutzatu behar zen, eta hori ekiditeko asmoz, saunako gela berria eta bainu turkiarra barruko igerilekuaren ondoan jarri dituzte. Hasiara baten, jacuzzia jartzeko asmoa izan zuten, baina azkenean ez dute



JULEN IRIONDO

Musakolako kiroldegia egubakoitzean inauguratu zuten, eta asteburuan sarrera doan izan da.

Lanak hilabete luzatu dira. Arrazoi nagusia izan da kiroldegia zabalik izatea.

egin. Osakidetzak ez zuen gomendatu, horrenbeste jendek erabiliko duen gauza bat egoe-

Bi helburu nagusi izan dira: aldagelak berriitu eta goiko solairua hobeto aprobetxatzea.

ra onean mantentzea ez delako batere erraza, eta horretan oso zorrotzak dira.

Eraikin zaharra denez, berrikuntza batzuk egiterako orduan zailtasunak izan dira.

Azkenik, beheko kantxako hormak margotzeaz gain, lurzorua ere aldatu egin dute.

Tarifa sisteman aldaketa garrantzitsua

Musakolako kiroldegiak aldaketa nabarmenak izan baditu ere, itxura ez da aldatuko den gauza bakarra. Datorren urtetik aurrera, kiroldegiko bazkide izateko tarifa sistema ere aldatu egingo da, eta nabarmen, gainera.

Orain arte, kiroldegiko bazkide egiterakoan kiroldegi osoa instalazioak erabiltzeko eskubidea zegoen. Baina horietako batzuk alokatzerako orduan ordaindu egin behar zen.

Datorren urtetik aurrera, kiroldegia bi gunetan egongo da banandua: alde batefik, igerilekuak, sauna eta bainu gunea egongo da, eta bestetik, gimnasioen, pilotalekuen eta hainbat kantxaren gunea. 2002. urtean, tarifak ez dira aldatuko, baina bazkide egiterakoan bi guneetako bat aukeratu beharko da. Trukean, orain arte instalazio bat alokatzeko ordaindu egin behar bazen

ere, hemendik aurrera, aukeratutako guneko instalazio guztiak debalde izango dira.

Orain arte, hogeitau urtetik gorako herritarrek 12.900 pezeta ordaindu behar izan dituzte Musakolako kiroldegiko bazkide izateko. Aurrerantzean, gune bateko bazkide izateko diru kopuru berbera ordaindu beharko da, baina beste aukera bat ere izango da.

Kiroldegiko bi guneak erabili gura dituenak 20.000 pezeta ordaindu beharko ditu, horrela, kiroldegiko zerbitzu guztiak debalde erabiltzeko eskubidea izango du. Hasiara baten, arazoak saihesteko, astean behin soilik alokatu ahal izango da kantxa edo pilotalekua, baina libre dagoen bakoitzean, berau erabiltzeko eskubide osoa izango da. Hasierako hilabeteak frogak egiteko aproposak izango dira.

Ramon Jauregiren esanetan kantxak zuen berritzeko beharrik txikiena. "Hala ere, behin lanekin hasita kantxa berritzeko ak mererki zuen, bestela, bi urte barru zaharkituta geratuko zenteta". Kantxan jarri duten lurzorua gomazkoa da. Gaur egun, bi aukera daude. Iturripen moduan egurrezkoa jarri edo bestela gomazkoa ipini. Musakolako kiroldegiko kantxa gauza askotarako erabiltzen denez, egurrezkoa jartzea ezinezkoa zen, eta gomazkoa jarri dute. Horrela, besteak beste, kontzertuak edo herri bazkariak daudenean, lurzoru hori ez da horrenbeste apurtuko. Baina gomazko lurra ez da edonolakoa, izan ere, eskubaloiko Asobal ligan erabiltzen den lur mota bera da.

ELBARRITUENDAKO EGOKITUTA

Orain arte, Musakolako kiroldegian elbarrituendako hainbat egokitzapen egin dituzte. Esate baterako, igerilekuetan uretara sartzeko igogailu bidezko aulkik berezi batzuk zeuden. Hala ere, kontraesana zen, barruko igerilekura sartzeko eskailerak zeudelako, eta goiko solairura igogailuak ez zegoelako igogailurik.

Gauza horiek guztiak konputan izan dituzte lanak egiterako orduan, eta beheko solairutik lehenengo solairura joateko igogailua jartzeaz gain, igerilekura sartzeko ere igogailu berezia jarri dute. Horrez gain, aldagelak eta komunak egokitu egin dituzte.

ORAINDIK BADAGO ZER HOBETU

Azken baten, kiroldegia oso ondo geratu da, baina oraindik badaogo zer egin. Antoñako eraikina ez dago oso ondo. Hainbat hormatan eta zoruan itoginak daude, eta horregatik, porlana lurzorura jausten da. Horrez gain, pilotalekuek ere arazo bera dute, eta datorren urtean arazo horiek konpontzen saiatuko dira.

Mojetegiko proiektua oraindik proiektu hutsa baino ez da, eta Diputaziotik jasoko den dirulaguntzak asko baldintzatuko du proiektu hori. Horregatik, Musakolako kiroldegiko eraberritzea proiektu horretatik aparte egin dute, kiroldegia zegoen egoeran egonda ezin zen-eta proiektu horren zain egon.

Bestalde, Debagoieneko kiroldegiek aurrera jarraituko dute txartel bateratuekin, baina hainbat gauza gehiago landu beharko dira. Musakolako kiroldegiko lanak eta garbitzaileen greba frogatik aurrera jarraituko da, nahiz eta gauza batzuk ikertu eta beste batzuk hobetu egin beharko diren. Denon onerako izan dadila.

UDALA/ Poltsikoko telefonoen antenak ipintzeko baimenaren inguruko eztabaida

Poltsikoko telefonoen antenen gaineko eztabaida

UBANE MADERA

Poltsikoko telefonoen antenen gaineko luzamenduak eztabaida eragin du epaitegietan. Bilbokoak dio Udalak moratoria ezartzea erabaki arren ez lukeela eragin beharko baimenak emateko. Donostiakoak kontrakoa uste du.

Poltsikoko telefonoen antenak direla-eta, Udalak joan den apirilean erabaki zuen urtebeteko luzamendua edo moratoria ezartzea, poltsikoko telefonoendako antenak ipintzeko baimen gehiago eman aurretik. Hain justu, eta ikusita antenen gainean sortu den kezka, erabaki zuen baimen gehiago eman aurretik komenigarria zela jakitea zein den mota horretako antenek gizakiarengan duten eragina. Hau da, giza-kari kalterik egiten dioten edo ez aztertzea gura zuen.

Baina mota horretako antenak ipintzen dituzten zenbait enpresa ez daude ados erabaki horrekin. Izan ere, Mondragoen antenak ipintzeko baimena eskatu zioten Udalarari, eta hark ezez-

*Retevision eta Esfera
Moviles enpresek
ipini zituzten
Udalaren kontrako
errekurtsoak*

*Epaitegien
kontraesanaren
aurrean, berriro
eztabaidatuko da
gaia Udalean*

ko erantzuna eman zien, jakina, harik eta luzamendua bukatu arte. Erantzun horren aurrean, helegitea edo errekurtsoa aurkeztu zuten Udalaren kontra. Horixe egin zuen Bilbon Retevision enpresak, batetik, eta Esfera Moviles enpresak Donostiako epaitegian, bestetik.

EPAI DESBERDIN BI

Orain, bi auzitegiek gai horren gaineko erabakia jakinarazi dute.

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Salak erabaki du nahiz eta Udalak luzamendua ezartzeko erabakia hartu, hark ez duela zertan eraginik izan poltsikoko telefonoen enpresa bati baimena eman edo ez erabakitzeko orduan.

Aldiz, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Salak uste du Arrasateko Udalak baduela hori erabakitzerik, bereziki, kontuan hartuta osasun arrazoiengatik ezarri duela neurri hori.

BERRIRO LANDUKO DUTE

Kontuak kontu, eta ikusita bi epaitegiak ez datozela bat gai horretan, oraingo astean, Hiri-gintza batzordeak gaia aztertu du eta datorren asteko Gobernu batzordeak berriro ere landuko du.

Azken baten, Udalak berak erabaki beharko du luzamendu hori bere horretan utzi edo datorren apirilera arte indarrean gordezten duen.



Biharamuneko pilularen gaineko hitzaldiak

Oraingo astean hasita, biharamuneko pilularen gaineko hitzaldiak egingo dira Mondragoen. Sexologia Zerbitzuak eta Emakumeen Kontseiluak antolatuta, asmoa da koitoaren osteko metodoen erabileraren gaineko nondik norakoak argitzea. Lehenengo hitzaldia eguaztenean egin zen, Andrea emakume taldeko ordezkariaren eskutik; hurrengoa azaroaren 8an izango da. Alfredo Otalora ginekologoa etorriko da orduan. Eta azkena, azaroaren 15ean, Agurtzane Ormaza sexologoak emango du.

400 bat ume perretxiko bila ibili dira. Domekan lehiaketa izango da

UBANE MADERA

Arizmendi Ikastolako 400 bat ume mendian ibili dira oraingo astean perretxikoak batzen. Gero, domekan, batutako perretxikoen erakusketa eta lehiaketa izango da Laubiden. Umeek mendia ezagutzea eta perretxikoak sailkatzen ikastea da ekimenaren helburua.

Urtero egiten du ekimen hori Arizmendi Ikastolak. 10-15 urte bitarteko ikasleei dago zuzenduta, haiek mendia ezagutu eta perretxikoak sailkatzen ikas dezaten, azken baten, perretxikoekiko zaletasuna bultzatu eta indartzeko. Aurten, hamaikagarren aldiz jokatuko dute lehiaketa.

Horretarako, perretxikoen gaineko kontuak lantzen eta ikasten ibili dira eskoletan aurreko asteotan. Era berean, Ikastolak berak perretxiko bila joateko irteera antolatu du gaur, egubakoitza. Horrez gain, asteburuetan eta ikasle bat baino gehiago gurasoekin joan izan da perretxikoak batzera.

Eta gero, domekan, batutako perretxikoen erakusketa eta lehiaketa izango da Laubide plazan. Perretxikoen aurkezpena gura den moduan egin daiteke:



ARIZMENDI IKASTOLA

laz, partaidetza handia izan zuen perretxiko lehiaketak.

kaxetan, saskietan, plateretan...

BOST SARI

Lehenengo, umeek batutako perretxikoak erakutsiko dituzte. Eta, 11:00etatik aurrera, lehiaketa hasiko da, 14:00ak arte. Hiru motako sailkapena egingo da perretxikoekin: pozoitsuak, perretxiko onak, eta oso onak. Bereziki 31 perretxiko mota balo-

ratuko ditu epaimahaiak (batzorde antolatzaileak).

Bost sari izango dira: sorta onenari (kalitatea eta kopurua kontuan hartuta); *Amanita* motako perretxiko sortari; *Boletus* onddoen sorta onenari; *Entoloma lividum* motako perretxiko sorta onenari; eta perretxikoen aurkezpen onenari. 14:00etan banatuko dituzte sariak.

LABUR

Ibai Artek bilera deitu du datorren asterako, alde zaharra oinezkoendako dela-eta

Herriko merkatarien elkarteak, Ibai Artek, batzarra deitu du datorren martitzenerako. Alde zaharra oinezkoendako ipintzearen ondorioak aztertuko dituzte batzarrean. Hirigune historikoko dendari eta zerbitzu guztiak daude gonbidatuta. Arratsaldeko 15:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

Ibai-Arteak adierazi digutenez, alde zaharreko zenbait auzokide eta merkatari ez daude konforme gune horretara autobiletz sartu eta irteteko ipinitako arautegiarekin. Udaletxean eta Ibai Arten kexuak jaso dituzte. "Garajerik ez dutenak ezin dira autoz sartu, goizez ez bada, eta, adibidez, saltokidunek askotan ezin dute zamalanik egin; edo erosketaz gainezka datozen auzokideak ezin dira atariraino joan; edo pertsona nagusiren bat hemen bizi bada, hark edo haren familiak ere ezin du automobila etxe ondora gerturatu hari laguntzeko". Horrekin batera, baina, Marimarrek argi utzi gura du Ibai Arte ez dagoela alde zaharra oinezkoendako izatearen kontra, "erraztasun handiago eskatzen dugu, Udalaren aldetik zorrotzasun txikiagoa, besterik ez".

Emakumeei zuzendutako autoestima ikastaroa antolatu du Emakume Sailak

Datorren martitzenetik aurrera, emakumeendako autoestima ikastaroa hasiko da, Pepa Bojo psikologo, psikoterapeuta eta terapeuta sexualaren eskutik. Helburua da emakumeek euren buruak gehiago baloratzea, ezagutzea eta maitatzea. Gorputzaren ezagutza sendotu, nor bere buruarekiko dituen sentimenduak definitu, horrela, autogestiorako ahalmenak, independentzia eta autoestima handitzeko.

Edozein adinetako emakumei dago zuzenduta ikastaroa, bereziki, nor bere autoestima indartu eta buru barruan sakondu gura duenarendako. Hamar saio izango ditu, martitzenetan, 17:00etatik 19:00etara, San Viator ikastolan. Izena emateko udaletxera deitu beharko da, edo Emakume Sailera zuzendu. Ikastaroa doan da.

OSOKO BILKURA/ Datorren ekitaldirako zergen igoera eztabaidatu du udalbatzarrak

Udal zergak %4 igotzea proposatu du Ogasun batzordeak, iazko KPIren arabera

UBANE MADERA

Urriari dagokion osoko bilkura egin zuten atzo, eguena. 17 gai jorratu zituzten: besteak beste, datorren urterako zergak onartzeko proposamena. Oro har, %4 igotzea proposatu zuten, Kontsumo Prezioen Indizearen arabera.

Baina badira salbuespenak. Jar-duera Ekonomikoen Gaineko Zerga, adibidez, %7,5 igoko da; aurreko urteekin konparatuta, dezente. Zerga hori kalkulatzeko koefizientea aldatu egin dute, eta horrexegatik igoera.


Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ere aldatu egin da. Kasu horretan ere koefizientea aldatu egin dutelako. Hori egiteko arrazoia da poliki-poliki ibilgailu mota guztiendako zerga bera erabili gura dutela. Kontuak kontu, auto txikien gaineko zerga %2 igoko da eta auto ertainena, %4.

Bestalde, Laubideko aparkalekuko ordukako tasak bere horretan gordetzea proposatu du Ogasun batzordeak.

AUKEAN ALDAKETAK

Edozelan ere, aldaketarik nabarmenena Musakolako kiroldegian egin dute. Hemendik aurrera, abonua bakarria izan beharrean lau abonua mota izango dira aukerak: igerilekua, sauna, lurrun bainua eta aldagelak erabiltzeko (igerileku abonua); oinarritzko gimnasioa, boulderra, pilotalekua, squasha, tenis edo kiroldegiko ordu bat alokatzeko eta aldagelak erabiltzeko (kiroldegiko abonua); aurreko guztia batzen duen abonua (abonu plusa); eta, azkenik, kanpoko igerilekuak, sauna, lurrun bainua eta aldagelak udako denboraldian erabiltzeko eskubidea ematen duena (udako abonua).

Ramon Jauregi AUKEAko arduradunak adierazi digunez, hori egiteko arrazoia izan da "erabiltzaileei zerbitzu pertsonalizatua eskaini gura diegula. Orain arte geneukan modua-



Musakolako kiroldegiak izango du aldaketarik handiena.

XABIER URZELAI

kin, esate baterako, igerilekua erabiltzen zuen bazkideak kiroldegi osorako egin behar zuen abonua. Orain, berriz, kiroldegia bi zatitan banatu dugu: batetik, igerilekuak eta sauna, eta bestetik, gainerakoak. Uste dugu

horrela erabileraren arabera egingo dituztela abonua". Hala ere, aurrerago hori guztia azaltzeko kanpaina abian ipiniko dutela jakinarazi digu.

EZIN ZIURTATU

Edozelan ere, ARRASATE PRESS-en edizioa errotatibara bidali genuenean oraindik osoko bilkura egin barik zegoenez, ez dago jakiterik Ogasun Batzordearen proposamena onartu duten edo ez.

Zergen igoeraren salbuespenak

Ondasun higiezin zerga: %0,9 Jar-duera ekonomikoen zerga: %7,5
Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga: auto txikiak: %2
auto ertainak: %6
Etxeko ur zerbitzua: (30m², gutxienez): 0,45€/hiru hilabetero (75 bat Pta)
Etxeko zaborren bilketa: 26,5€/hiru hilabetero (1.665 bat Pta)
Iturbide egoitza: %4

Udal hilerriko zergak:
Panteoiak: 7.200€ (12.000 bat Pta)
Hormako hilobiak: 200 (33.300 bat Pta)
Hezurtegiak (10 urterako): 105€ (17.500)
Erraustea: 38,3€ (6.400 bat Pta)
Kiroldegia: lau abonua mota:
Igerilekuko abonua (familiarra): 126,2€
Kiroldegiko abonua (familiarra): 126,2€
Abonu plusa (familiarra): 189,5€
Udarako abonua (familiarra): 63,1€

Perretxikoak bereizten ikasteko eta antzerkia egiteko ikastaroak

UBANE MADERA

AED elkarteak ikastaro bi antolatatu ditu azarorako. Alde batetik, perretxikoak bereizten ikasteko ikastaroa izango da, Aranzadi Zientzia Elkarteak Jose Mari Zapirainen eskutik. Azaroaren

7-8an izango da, AEDn bertan. Izena emateko epea, berriz, azaroaren 6an bukatuko da. Izena ematea: 1.000 pezeta.

Bestalde, antzerki tailerra ere antolatuko du AEDk. Azaroaren 10ean, zapatuan, hasiko da; eta hurrengo hamabi zapatuetan

segituko du, goizetan. Aitziber Zumaldek emango du ikastaroa. Izena emateko epea azaroaren 8an bukatuko da. Matrikula 5.000 pezetakoa izango da. Bai ikastaro batean zein besteetan izena emateko AED elkartera jo beharko da edo 943 771228 telefonora deitu.

Aske utzi dute Jose Mari Pagoaga mondragoetarra

UBANE MADERA

Jose Mari Pagoaga preso mondragoetarra aske utzi dute hiru hilabetez kartzelan egon eta gero. Amnistiaren Aldeko Batzordeak adierazi dutenez, "Frantziako Estatuan sartzeko duen debekuagatik" atxilotu eta kartzela-

ratu zuten, Baionan, abuztuaren 30ean, "zuen debekua ez betetzeagatik". Eta egubakoitzean utzi zuten libre, Biriaturko mugan.

Era berean, AABEk mondragoetar horren egoera salatuz gura dute, "Euskal Herrian aske bizi izateko eskubidea ukatzen baitzaio behin eta berrir".

LABUR

Errefuxiatu sahararrendako laguntza

Udalak Saharako errefuxiatuak botikak eramateko laguntza onartu du. Hain justu 750.000 pezeta bideratuko ditu Aljeriako Tifariti herriko 3. auzoko errefuxiatuen osasun etxea hornitzeko.

Autobus zerbitzu berezia Domu Santu eta bezperarako

Autobus bereziak izango dira Domu Santu Egunean eta bezperan hilerrira joateko. Bezperan, autobusak ordu jardungo du: 10:00etatik 12:00ak arte eta 15:00etatik 18:00ak arte. Eta egunean bertan, 10:00etatik 13:00ak arte ordu erdi ibiliko da autobus bat, eta 15:30etik 18:30ak arte hogei minuturo.

Fronte baten aurkezpena eta drogak ezbaian

Mondragoeko Segi elkarteak "Espainiar eta frantziar faxismoaren aurkako frontea" taldea aurkeztu zuen atzo arratsaldean gaztetxean.

Bestalde, datorren eguztaren, drogak hizpide hartuta hitzaldi-egutia antolatuko dute. Iluntzeko 19:30ean izango da, hori ere gaztetxean.

San Andres auzoko emakumeendako ikastaroak

San Andresko emakumeendako ekintzak antolatu dituzte. Batetik, eskulan ikastaroa izango da, eta bestetik, autoestima tailerra. Urriaren 17an hasi eta abenduaren 19ra arte iraungo du eskulan ikastaroak. Eta urriaren 23tik abendura arte autoestimarekin lotutako 10 saio izango dira.



NEGUA DATORRELA

Azkeneko asteotan izan dugun hego haizeari esker, ez dirudi udazke-
nean gaudenik. Hala ere, gaztaina piloa dago gure basoetan, eta
Seber Altubera iritsi da dagoeneko gaztainak dastatzeko tren. Horri
esker konturatzen gara neguaren atarian gaudela, eta oraindik giroa epel
badago ere, laster, gustura asko hartuko dugu, gaztainerkin batera, haiek
biltzen dituen paper beroa ere.



UDALATX EGUNA


Mendizale ugari parte hartu zuten urriaren 12an
ospatu zen Udalatx Egunean. Gurutzearen 30.
urteurrena dela-eta, jai berezia izan zen. Urtero

moduan, mendian hildako mendizaleak gogoan izan
zitezten, eta bi neskatila hauek ere helburu horrekin
igo ziren Udalatxeko punta-puntaraino.



ZIENTZIA.NET SARIA ARRASATERA

Begira zer aurkitu dugun
interneten nabigatzen
genbiltzala. Elhuyarrek
zientzia.net izeneko zientzia-
atari bat dauka, eta harpidedu-
nen artean sari bat zozketatu
zuen: Alkizako Lete landa-
etxean asteburu bateko
egonaldia, hain zuzen. Zorio-
nak, Jon eta Aintzane!



KALE BAKARRA ETA...BI IZEN?

Gauzek euskaraz eta espaino-
lez izen ezberdina izaten
dute. Kasu honetan, itzulpena
ote? Ez dugu uste hori denik

arrazoia, baina badaezpada ez
diogu inori errurik botako.
Lehenago edo geroago erabaki
egin beharko da bietako zeinek

balio duen, bestela arazoren bat
edo beste izan daiteke. Momentuz,
gustukoen duzuen aukera
dezakezue.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



XABIER URZELAI

Mondra taldea denboraldiko lehenengo partiduan, Zestoaren kontra.

FUTBOLA

Mondra futbol taldeak bost eta huts irabazi zion Bergarari Atxabalpen

Raul Leibaren mutilek zer egiteko gai diren erakutsi zuten zapatuko norgehiagokan

XABIER URZELAI

Mondrak denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen zapatuan. Bergararrak erregional mailako azken postuan zegoen talde baten kontra jokatzeraz etorri ziren, eta bost golekin bueltatu ziren ondoko herrira.

Arrasateko futbol taldeak aspaldian ez bezala jokatu zuen zapatuan Atxabalpen. Raul Leibaren mutilek hasiera-hasieratik argi erakutsi zuten irabazteko partidua zela. Jokoan ere kanpotarrek baino nagusitasun handiagoa erakutsi zuten; horrela, partidua hasi eta minutu gutxira, Ekainek bat eta hutsekoa egin zuen. Bigarren minutua zen eta etxeko taldea ordurako aurretik zen markagailuan. Andoni Soduperena izan zen hurrengo gol aukera, baina hark ez zuen lortu baloia sarera bidaltzea.

Markagailuko aldea oso handia izan bazen ere, jokoan ez zen horrenbesterako alderik izan. Etxekoek partidua kontrolpean izan zuten, baina inork ez zuen uste horrenbeste gol egingo zituztenik. Lehenengo zatia bat eta huts amaitu zen, emaitza laburregia, akaso, bigarren zatian lasai irteteko.

BIGARREN ZATIA, BIKAINA

Etxeko jokalariek ere argi zeukaten gol bateko errenta oso motza zela, eta alde hori defen-

datzera baino gol gehiago egitera irten ziren. Hegaletik jokaldi politak egin zituzten, eta Jon Muruak bi aukera eduki eta biak aprobetxatu zituen. Bestalde, jokalaria gazteenak fin ibili ziren, eta gazteenetako batek, Asier Gonzálezek, hain zuzen, lau eta hutsekoa egin zuen. Etxeko jokalariek ez zuten nahikoa eta, hainbat gol aukera garbiren ondoren, Muruaren pase on bat bikain aprobetxatu zuen Mondrako beterranoenetak batek, Ruben Ruedak, bost eta hutsekoa egiteko.

Partidua amaitzeko hamar minutu falta ziren oraindik, eta bost goleko aldea izanda ere, etxekoak ez ziren konformatu. Andonik eta Ekainek gol aukera gehiago izan zituzten, baina ez zuten asmatu.

ORAINGO ASTEBURUKOA KANPOAN

Arrasateko futbol taldeak kanpoan jokatuko du oraingo asteburuan. Partidua domekan izango da, Amaikak Bat taldearen zelaian, eta oraingo asteburuko aurkaria aurrekoa baino gogorragoa izango da. Amaikak Bat taldeak partidua bakarrik galdu du, eta dagoeneko hamabi puntu ditu. Saillapen nagusiari erreparatuz gero, bigarren tokian dago, hamabi punturekin, hain justu. Mondrak bederatzi puntu gutxiago ditu, baina datu horiek guztiek atzera beharrea aurrera bultzatu beharko liekete etxeko jokalariei.

Erregionaleko goiko postuan dagoen talde bati irabazteak pasaden asteburuko emaitza bikainak baino segurtasun eta poztasun handiagoa ekarriko lituzke.

Behin erakutsiz gero...

Zapatuan, Mondra futbol taldeak gauza asko utzi zituen argi. Alde batetik, badakitela futbolearen egiten, eta bestetik, zortea lagun badute emaitza oso onak lor ditzaketela.

Lehenengo partidutik asko eskatu zitzaion talde horri, eta orain arte ezer gutxi erakutsi du. Orain, badakigu noraino eska dezakegun, baina pausoz pauso joan beharko dira. Lan egiten jarraitzea baino ez dago, eta zapatukoa ez dadila azkena izan. Golak baino puntuak behar dira, eta lokartzen ez den bitartean, lasaitasuna daukanak errazago egiten du lan. **Ea Amaikak Bat den Mondraren hurrengo biktima.**

KARATEA

Isidor Ugartek Zaragoza Hiria karate txapelketa jokatu zuen Euskal Selektzioarekin

Pasa den asteburuan, Zaragoza Hiria karate txapelketa jokatu zen, eta Isidor Ugarte Euskal Selektzioarekin izan zen. Guztira sei talde aritu ziren, eta euskaldunek hirugarren postua eskuratu zuten.

Isidorrek senior mailan jardun zuen, Kumite eta Kata modalitateetan, eta gustura itzuli da han egindako lanarekin. Asteburuko proba hori datorren astean Oviedon jokatuko den txapelketarako prestaketa izan da, eta hori izango da benetan balioko duena. Ea emaitza ona eskuratzen duten Oviedon.

MENDIA

Gredosera mendi irteera antolatu du Besaidek azaroaren 1etik 4ra

Besaide Mendi Elkarteak Domu Santuko zubia kirola egiten aprobetxatzeko aukera eskainiko du. Horrela, azaroaren batetik lau bitartean, Avilan dagoen Gredosko mendizerrara joateko aukera izango da.

Mendi irteera horretan aterpetxeetan egingo dute lo, mantedu erdian, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Azken baten, aukera paregabea inguru haiek bisitatzeko.

XAKEA

Arrasateko xake taldeak bikain hasi du Gipuzkoako Ligako txapelketa

Arrasateko xake taldeak joan den asteburuan jokatu zituen Gipuzkoako Ligako lehen partidak, eta oso emaitza onak izan zituzten. Aurrez aurre Eibarko xakelariak izan zituzten, baina haiek ez zieten oztopo handiegirik jarri. Azkenean, etxeko xakelariak lau puntutik hiru eta erdi ekarri zituzten Arrasatera.

Oraingo asteburuan, Arrasatek Hondarribiaren kontra jokatuko du, eta Arrasate B taldeak Elgoibarren kontra.

ESKUBALOIA

Arrasate Almenek 21 eta 22 irabazi zion Pasaiari oso partidu gogorra jokatu eta gero

Arrasate Almenek etxean jokatuko du oraingo asteburuko partidua. Bernardo Balerdik arazoak izango ditu Tolosari aurre egiteko; izan ere, joan den asteko partiduan etxeko taldeak irabazi egin zuen, partidu gogorra jokatu eta gero, baina etxeko taldeko jokalaria asko ospitalera eraman behar izan zituzten.

Hala, domeka eguerdian Iturripen jokatuko duten partidurako baja asko izango dira. Min hartuta dauden jokalariei, animo!

PILOTA

Arrasateko lau bikoteetatik, Arroiabek eta Zuazuak bakarrik irabazi zuten

Etxeko pilotariak ez ziren oso fin ibili joan den asteburuan, eta Aretxabaletako pilotarien kontra jokatu zituzten lau partiduetatik, gazte mailako Arroiabek eta Zuazuak bakarrik lortu zuten partidua aurrera ateratzea.

Oraingo asteburuan, etxeko pilotariak kanpoan jokatuko dute. Seniorretan Zugasti eta Lazkano Azkoitiaren kontra arituko dira, eta Errastik eta Zuazubiskarrek Hernaniren kontra jokatu beharko dute. Ea emaitza hobek ekartzen dituzten.

FUTBOLA

Mondra taldeko neskek Eibartarrak-en kontra jokatuko dute domeka eguerdian

Arrasateko futbol taldeko neskek ez dute batere gaizki hasi denboraldia. Dagoeneko sei partidua jokatu dituzte, eta horietatik lau irabazi egin dituzte. Joan den asteburuan, Almen taldearen kontra neurtu zituzten indarrak, eta 1 eta 4 gailendu ziren Arrasatekoak.

Oraingo asteburuan, Eibartarrak taldea izango dute aurrez aurre. Partidua domeka eguerdian jokatuko da Atxabalpen.

CORSA BERRIA SRi



Zure burua auto honetan ikusi gura zenuke



**CORSA
BERRIA
SRi**

**1.4
16 v
90 zp**

Opel-ek Corsa SRi berria aurkezten dizu.

Prestazio handiko diesel motorrak:

1.4 16v 90zp eta SRi ekipamendu osoa **serieko ABSrekin**.

Gutxitan izango duzu horrelako aukera bat.

Pasatzen utzi behar duzu?

Orain, prezio ikusgarrian:

1.665.000 pezeta.* Serieko ABSrekin.

Corsa SRi berria, baita motor hauekin ere:

1.2 16v 75zp eta dieselean 1.7 16v 65zp eta 1.7 DTI 16v 75zp.

Guztiak ere serieko ABSrekin, hiru edo bost aterekin.

Diesela 1.7 DI 16v 65zp: **1.735.000 pezeta.****

www.opel.es

OPEL CREDIT

123

1, 2, 3 aukerak: beti auto berria izateko aukera errazena.

* 10.007 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.4 16v 90zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne.

** 10.427 €. PVP Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan, Corsa (3 ate) 1.7DI 16v 65zp. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen-deskontua eta Prever Plana barne. Ikusten diren haguak eta lainotako faroak aukerakoak dira.

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu Ofiziala

TAKOLO AUTOAK

San Andres, 10.D. Tfnoak: 943 77 30 10.

ARRASATE

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA	P	J
Betrayer - Txotx	7-5	
Goma 2 - Maldifas	8-2	
Estu Ta Larri - Lasagabaster	2-1	
Fragel Gol - Mekanaki	1-3	
Bazar Toki On - Iriztu taberna	0-6	
Saukelu scream - Usotz Potroak	4-4	
Aurrera Bolie - Bikain Akademia	3-6	
Rayo Aldeano - Chapime Driblin	1-5	

B MULTZOA

DDK - EGD	21-0
AT Celaya - AKTA	5-1
Komando Alpagat - Etxinal!	7-3
Bin Laden - Azkena You Know	2-4
AC Surcos - Full Duplex	8-1
Etxerat - Abocajarro	12-0

PARTIDUAK

URRIAK 27, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Estu ta Larri-Iriztu tab. Full Duplex
11:00: K. Alpagat-Full duplex. Iriztu tab
12:00: Goma2-Mekanaki. K.Alpagat
13:00: Etxerat-KJ Basati. Goma2
14:00: AT Celaya-Azkena YK. KJ.Basati
15:00: Saukelu-Chap.Dribling. AT Celaya
16:00: IKP-AKTA. Chapime Dribling
17:00: Fragel Gol-Usotz Potroak. IKP
18:00: Irati STS-EGD. Usotz Potroak
19:00: A.Bolie-Rayo Aldeano. EGD

URRIAK 28, DOMEKA

09:50: Txotx-Lasagabaster. Bin Laden
11:00: Bin Laden-Abocajarro. Txotx
12:00: Bazar T.O-Bikain akad. Abocajarro
13:00: DDK-Etxinal! Bazar Toki On

Atsedena: AC.Surcos, Betrayer, Maldifas.

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Goma2	2	1
2. Betrayer	2	1
3. Iriztu taberna	2	1
4. Bikain akademia	2	1
5. Chapime Dribling	2	1
6. Mekanaki	2	1
7. Estu Ta Larri	2	1
8. Saukelu Scream	1	1
9. Usotz Potroak	1	1
10. Txotx	0	1
11. Aurrera Bolie	0	1
12. Maldifas	0	1
13. Lasagabaster	0	1
14. Fragel Gol	0	1
15. Rayo Aldeano	0	1
16. Bazar Toki On	0	1

B MULTZOA

B MULTZOA	P	J
1. DDK	2	1
2. Etxerat	2	1
3. AC Surcos	2	1
4. Komando Alpagat	2	1
5. AT Celaya	2	1
6. Azkena You Know	2	1
7. Etxinal!	0	1
8. Bin Laden	0	1
9. AKTA	0	1
10. Full Duplex	0	1
11. Irati STS	0	0
12. KJ Basati	0	0
13. IKP	0	0
14. Abocajarro	0	1
15. EGD	0	1

Arrasateko errugbi taldeak irabazi egin zion Durangori zapatuan

XABIER URZELAI

Arrasateko errugbi taldeak etxean jokatu zuen denboraldiko lehen partidua, eta 17 eta 3 irabazi zuten arrasatearrek, Durangoren aurka. Oraingo asteburuan, etxeko taldeak kanpoan jokatu du, Elorrioko taldearen kontra. Partidu gogorra izango da, duda barik.

Zapatu arratsaldean giro bikaina egin zuen, eta Garagartzako zelaira hurreratu zirenak errugbi-azkeneko aukera izan zuten.

Lehenengo zatian, ordea, talde biek eginiko jokoak ez zuten gozatzeko aukera handirik eskaini, eta atsedendira durangarrek huts eta hiruko aldearekin erretiratu ziren. Hala ere, bigarren zatian gauzak asko aldatu ziren. Etxekoek, lehenengo partidua aurrera atera behar zutelako argi izanik, gora egiteko asmoa agertu zuten, eta norgehiagoka kontrolatzeko gogor borrokatzen hasi ziren.

Indartsu jokatu, arrasatearrek hiru entsegu egin ahal izan zituzten. Garikoitz Heriz, Iban Agirreurreta eta Ian McGregor irlandarrak lortu zituzten etxeko hiru entseguak.



GOIENA TELEBISTA

Arrasateko jokalariek bigarren zatian eman zioten buelta partiduari.

Oraingo asteburuan, etxeko taldea Elorriora joan beharko da partidua jokatzera. Partidua bihar izango da, arratsaldeko laurretatik aurrera, eta seguruenik, aurreko partidua baino askoz gogorragoa izango da.

ARAZO ASKOREKIN, BAINA AUERRERA

Arrasateko errugbi taldeak, aurreko ere, arazo askorekin taldea aurrera ateratzea lortu du. Tal-

dea desagertzeko zorian izan da, alde batetik, batzuek taldea utzi egin dutelako, eta bestetik, gazte mailatik talde nagusira ezin izan delako jokalaririk pasatu.

Hala ere, Arrasateko errugbi taldeak beste urte batez aurrera egingo du, eta denboraldi honetan euren jokorekin gozatzeko aukera izaten jarraituko dugu. Ea animatzera hurreratzaren garen!

LASAITASUNA NAGUSI

ARAZO BARIK

Txapelketako lehenengo jardunaldian ez zen inongo arazorik izan. Partidu guztiak lasaitasunez jokatu ziren, eta joko garbia izan zen nagusi. Ezin esan hasiera makala denik, baina egoera hori denboraldi osoko kontua den ikusi beharko da. Horrez gain, lehenengo partiduan jipoi ederra hartu duten taldeei, animo!

IRATI STS - IKP ATZERATUTA

Irati STS eta IKP taldeek zapatuan zeukaten hitzordua, baina partidua ez zuten jokatu. Iurretako taldeak garaiz jakinarazi zuten antolatzaileei ezin zutelako partidua jokatu, baina antolatzaileek, gaizki ulertu bategatik, ez zioten ezer esan Irati STS taldeari. Hori dela eta, antolatzaileek barkamena eskatzen dute sortutako arazoengatik.

GORA ETA BEHERA

↑ DDK (DOMEKA DANETAN KLABO), ETA ETXERAT

Badirudi biharamunaz jokatu zuen taldea EGD izan zela, nahiz eta partidua eguerdiko ordu batean jokatu. 21 gol egin zizkion DDK-k, eta Etxerat taldeak hamaika gol egin zituen. Ez da hasiera txarra.

↓ ANTOLATZAILEAK

Txapelketako lehen partidua ziren, eta oraindik normala da antolakuntzan arazo batzuk izatea. Hala ere, zapatu arratsaldeko partidua argi barik jokatu ziren, hortaz, antolatzaileendako beheranzko gezia.

Kenci Arrasatek segidan lortutako bigarren garaipena Iturripen

XABIER URZELAI

Zapatuan, Arrasateko saskibaloitaldeak denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuen. Horrela, Kencik etxean segidan jokatu dituen bi partidua irabazi ditu, hasiera kaxkarrari buelta eman dio.

Arrasateko saskibaloitaldeak 84 eta 74 irabazi zion zapatuan Arrigorriagako Padura taldeari. Etxeko taldea gogo handiz kantzaxatu zen, baina Iker Zubiriaren mutilek ezin izan zuten euren joko-eritmoa inposatu. Bizkai-

tarrak eritmo azkar hori geldituzen saiatu ziren, eta behin baino gehiagotan lortu egin zuten. Arrasatearrek ez ziren fin ibili partiduko hasierako minutuetan, eta kanpotarrek aurre hartu zuten.

Hirugarren laurdenetik aurrera, beste talde bat ikusi ahal izan genuen. Zortzi eta hutseko partzialari esker, arrasatearrek 50 eta 48 aurreratu ziren, eta handik aurrera aldea handitu egin zen.

Laugarren laurdenean etxeko taldeak behera egin zuen osteraren ere, eta kanpotarrek 63na ber-

dindu zuten. Azkeneko minutuak izan ziren erabakigarrienak. Erasozorrotzari esker, eta atzealdean lan handia eginez, etxeko taldeak 12 puntu egin zituen jarraian, eta horri esker kanpotarrek esku hutsik itzuli ziren Arrigorriagara.

KANPOAN IRABAZTEA HELBURU

Arrasateko saskibaloitaldeak etxean jokatu zuen azken bi partidua irabazi ditu, eta oraingo asteburuan, kanpora joan beharko dira. Etxekoek Urdaneta izango dute aurkari, sailkapeneko azkena, hain zuzen ere.

BADATOR GIDA 2002

GIDA 2002. Aukera ematen dizu Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzagako merkatarien helbide eta telefono guztiak modu errazean aurkitzeko.



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak - eskelak

Amilaga, 39 ▪ 20570 BERGARA
Tel.: 943 761 299 ▪ Faxe: 943 761 299
e-mail.: harrespil@harrespil.net



Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 ▪ 20004 DONOSTIA
Tel.: 943 434 062 ▪ Faxe: 943 429 529
e-mail.: harrespil@harrespil.net

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



Garagariza auzoa, 5-2.
(Bixieha Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Iztue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK
PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

AURI

Lorainendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak



EGIA

iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Margoak

APAIN

Mar go eta apainketa

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta atekin konponketa • Artazi, laban eta abarren saln eta eta zorozketa • Lamuzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroskim erkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91**
telefonora

ELKARRIZKETA

AITZIBER ZUMALDE/ANTZERKILARIA

“Txikitan, etxean, lau trapu jantzi, abestu eta imitazioak egiten nituen”

IKER BARANDIARAN

Aitziber Zumaldek 23 urte ditu eta Getxoko Antzerki Eskolan antzerki ikasketak egin ditu. AEDk azaroaren hasieran antolatutako antzerki tailerreko irakasle gisa ikasitakoa erakustera etorri da.

Noiz konturatu zinen antzerkia gustuko zenuela? Oso txikitan?

Bai, egia esan, nahiko txikitan piztu zitzaidan zaletasuna. Gerora, zalantzak izan nituen, al baitaritz zela eta ez zela... baina beti ondorioztatzen nuen antzerkia gurago nuela.

Etxekoei ikuskizunak egiten zenizkien txikitan?

Bueno, ikuskizunak baino tontakeriak egiten hasten nintzen; lau trapu zahar jantzi eta imitazioak egiten nituen, gimnasia, abestu... Etxeko pailazoa nintzen. Oraindik ere, emozio-natzen naizenean, gai naiz hala-koak egiteko.

Eta noiz hartu zenuen behin betiko erabakia?

Almenen nengoela, zer ikasi pentsatzeko unean, antzerkia aukeratu nuen. Asmo bera zeukaten lagun batzuekin topo egin nuen, horren inguruko informazioa batzen hasi eta Getxoko Antzerki Eskolan izena eman genuen. Ez nuen beste ikasketarik hasi gura, banekielako antzerkia oso gustuko nuela, eta behar-bada, beste zerbait hastera denbora galtzea izango litzatekeelako.

Zelan hartu zuten etxean zure erabakia, hau da, antzerkigintza ikastea?

Hasieran, esaten nienean txantxetan nembilela uste zuten, baina geroago, hainbeste esan ondoren, egia zela konturatu ziren. Amari oso ideia ona iruditu zitzaion, horrelako gauzak asko atsegin dituelako, eta aitak ere ondo hartu zuen.

Oso gaztetan, musika taldeekin ere nolabaiteko antzezlanak egiten zenituen. Ez da hala?

Bai, Mad Shadows eta Ekon taldeekin zuzenekoetan zerbait egin nuen. Garai hartan, ni ikasketetako lehenengo mailan nembilen, baina orduan egiten nuenak ez zeukan antzerkiarekin zerikusirik zuzenik. Batez ere, inprobisazioa edo esketxak ziren.

Ikasketei dagokionez, zenbat urte egin dituzu Getxoko Antzerki Eskolan?

Ikasketa profesionala lau urtekoa da. Hala ere, badaude bes-



IKER BARANDIARAN

“Getxoko Antzerki Eskolarekin urte baterako kontratua daukat gure lan bat antzezteko”

te aukera batzuk, arratsalde, amateurrendako. Gure ikasketako azkeneko urte praktikoa, edo hobe esanda praktikoagoa, izan zen. Proiektu bat egin beharra daukagu, hau da, antzezlari handi bat, gero hor zehar antzeztu behar duguna. Hortaz, azkeneko urtean horren muntaia egiten eta prestatzen ibili ginen. Ikasgai batzuk genituen arren, proiektu horretara bideratuta daude.

Jeneralean, ikasketa horietan oso teoria gutxi dago eta ez da oso garrantzitsua. Garrantzitsuena praktika da.

Hortaz, Getxoko ikasketak bukatu berri dituzu. Horrekin

“AEDren tailer berri hau izan ezik, ibarrean ez dago antzerkiarekin lotutako ia ezer”

lotutako beste zerbait ikasteko asmorik badaukazu?

Adibidez, antzerki zuzendaritza ikasi nahi izanez gero, Euskal Herritik kanpo joan beharra dago, Madrilera edo Bartzelonara. Beste lau urte inguru izango lirateke eta, gainera, ikasitakoren nahiko antzekoa da. Momentuz ez daukat halakorik egiteko asmorik.

Zer moduz Getxoko Antzerki Eskolan? Espero zenuena izan da?

Lehenengo urte nahiko araroa izan zen. Guk ez genekien ia ezer, aurretik AEDn antzerki tailerra eta Amaia antzokian antzezlana egin genuen, besterik ez.

Hutsetik ikasten hasi behar izan ginen. Oso eskola berezia da, metodo-antzerkia irakasten dute, oso sakona da. Gainera, esperientzia nahikotxo zeukan jendea zegoen gurekin, eta hasieran oso galduta geunden.

Dagoeneko hainbat antzezlantetan lan egin duzu. Konta iezaguzu...

Bueno, aspaldi, AEDn antzerki tailerra egin zen, baina ikasleok ez geneukan ganora handirik eta ez genuen ia ezer egin. Gero, hurrengo urtean, erreplikatu egin zen fundamentu handiagoarekin, eta bukaeran antzezlana egiteko deitu egin zidaten. Ekekei antzerki taldeko Ttote zen irakaslea, eta *Nueva Zaragozako herritarrak* antzezlana egin genuen, Amaia antzokian.

Gero, denbora luzean ez nuen ezer egin, Getxoko eskolara joan artean. Getxon paper txikiekin hasi ginen, ohitzen joateko, gero, esketxak... Urteak pasatu ahala, gehiago. Urtero egin dugu Getxoko antzokian bertan antzezlantzen bat, baita Arrasaten ere.

Eta zein antzerki mota duzu gurago? Dramatikoa edo komikoa?

Paper dramatikoak egin izan ditut, baina, berez, komikoa gurago dut, eta gehienak horrelakoak izan dira. Bakoitzean, tokatzen dena. Nik uste dut iragarriak izan ezik, esketxak, gauza luzeak, motzak, film laburrak, ume antzerkia..., ia denetik egin dut.

Urte dezente pasatu ondoren, AEDko antzerki tailerreko irakasle izango zara. Zer pentsatu zenuen hasieran?

Izugarri poztu nintzen, batez ere, ibarrean ez dagoelako antzerkiarekin lotutako ia ezer, eta baietz esan nien. Gainera, AEDk gero kanpora ateratzeko antzezlantza bat egin gura luke, eta oso polita iruditzen zait. Azaroaren erdialdean hasita, zapaturo lau bat ordu egingo ditugu, 10:00etatik 14:00ak arte.

Eta gainontzean, zein asmo daukazu orain?

Eskolarekin urte bateko kontratua daukat. Ikasturte bukaeran prestatu genuen lana, Bertold Brecht-en *Sesungo arima garbia*, hain zuzen. Getxoko eskolan egin den euskarazko lehenengo antzezlana da. Horri ekin eta beste zerbait egiteko asmoa daukat.

Antzerkiaz biziko zinateke?

Primerakoa izango litzateke, baina oso zaila da antzerkiaz bizitzea. Errazagoa da telebistarekin edo zinemarekin antzerkia tartekatzea.

KULTURAPILULAK

Bi arrasatear saritu dituzte Gazteen argazki lehiaketan

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak antolatutako Gazteen Eki-menak XII Argazki Lehiaketan, A kategoriako lehen saria Jokin Carrillok eskuratu du, eta Emakume Sailaren sari berezia Maria Dapenak, biak arrasatearrak.

MCD taldeak disko berria aurkeztuko du gaztetxean

MCD talde bilbotarrak disko berria aurkeztuko du azaroaren 9an Arrasateko gaztetxean. Bilboko punk taldearekin batera Oñatiko Udal Banda arituko da. Hala, *Inbecil.com* izeneko lan berria aurkeztuko dute. Era berean, kantu berriak entzuteko aukera izango dugu, baita diskoa 500 pezetan eskuratzeko ere.

Esteberen omenez DJ festa prestatzen dabilta lagunak

Duela gutxi, Estebe Llodio gaztea hil egin zen. Haren lagunak, Arrasatekoek eta beste herri batzuetakoek, merezitako agurra egin gura diote, eta Esteberen zaletasun batekin bat eginez, DJ festa prestatzen dabilta. Oraindik ez dute zehaztu non eta noiz izango den. Besarkada bat gure partetik Esteberendako!

Globalizazioaren gainera berbaldia gaur gaztetxean

Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Antton Mendizabal gaztetxean mintzatuko da globalizazioaren gainera. Gazteak martxa hartu dio ekitaldiak antolatzeari, eta azaroan izango dugu horren berri. Horrez gain, batzarra egingo dute domekan, 18:30ean manifestazio nazionala dela-eta.

Literatura solasaldi mistoak egingo dituzte liburutegian

Udaleko Emakume Sailak eta liburutegiak antolatuta, literatura solasaldiak egingo dituzte Monterron kultura etxean azaro eta abendu artean. Euskarazko saioen dinamizatzailea Itziar Zubizarreta izango da eta gaztelaniazkoena, Ana Arregi. Parte hartu ahal izateko, izena eman azaroaren 2a baino lehen.

BEHEKOTABERNATIK

Alberto Matilla

IAMAI TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Mondragoen jaixo zan, eta 16 urtekin Gasteizera juen zan bizi izetera. Oin dala bi urte etorri zan hona, taberna zabaltzeko asmoz. Leku barri baten dago lamai, eta oso pozik dabil.

Amets bat.

Tabernie aurrera ataratie.

Amets txar bat.

Nahixago dot ez pentsetie.

Egin dozun azken biatje.

Bartzelonara, bidaia penagarrixe izen zan arren.

Txartel horixe, zeñei?

Bush-ei.

Eta gorrixe?

Hori be Bush-ei.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Julio Medem-en edozein / Yogaren gaineko bat leiduten nabil / REMen edozein.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, jakiña.

Eta prostituziñue?

Baitta be.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Nahixago dot diskotekie.

Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Gauza asko, baiñe, batez be, Monterron.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Etxebizitzen arazue. Sekulako arazuek dagoz etxe bat errentan hartzeko edo erosteko.

Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Galdera ona. Madrilen eta Gasteizen arteko harremana hobeketan ahaleginduko nitzake.


Ze gehitu leikixo ARRASATE PRESSEi? Eta ze kendu leikixo?

Kulturie interesetan jat, eta alde horretatik ondo dago. Ez neuke ezer be kenduko.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Ezaguketan dittudan pertsona famatuek; azken baten, zure eta nire modukuek die.

Eta ezagutu nahiko zeunke-



"Mondragoeko kaferik onena ataraten dogula komentau izen daue bezero askok. Je, je"

ena?

Politikoren bat, zelakuek dien benetan jakittek.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Horrenbeste dagoz...

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Fuentes y compañía oso ondo dago. Siglo XXI irratsaiue.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Erropatan, edo amari opari bat egitten.

Hondartza ala mendixe?

Hondartza, duda barik.

Tabernari izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?

Modelo izeten ahaleginddu

"Tabernan antzerkixek, kontzertuek edo beste gauza batzuk egitten saiaketan gare"

nitzen, baiñe...

Aukeran, zapatu gabien lan egin edo domeka goxien tabernie zabaldu?

Zapatu gabien lan egin.

Tabernako espezialidadi?

Mondragoeko kaferik onena ataraten dogula esaten daue. Je, je.

Ekitaldiren bat edo beste be egitten dozue.

Bai, antzerkixe eta musika ekitaldixek egitten dittugu, baiñe ez da bat be samurre.

Ligetarako orduen gomen-dixo bat?

Zuzenien juetie, bestela ez da ezer be lortzen. Barra ostetik intenzio asko ikusten die, hamendik ez dogu bat bera be galtzen.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Nuño

Italiara eta Greziara / 2001eko abuztu

Jon Nuñok hainbat bidaia interesgarri egin ditu azkeneko bi urteotan, baina berarendako erakargarriena aurtengo udan egin duena da, eta oraindik gogoan du nondik nora eta zelan ibili zen. Bidaia neskalagunarekin eta beste bikote batekin egin zuen. Uzta-laren 28an irten ziren, Jon Arrasatetik eta besteak Eskoriatzatik, hain zuzen ere. Hogeita lau egunean Italia eta Grezia ikusteko intenzioa zeukaten, eta hala egin zuten, neurri handi baten. Bidaia gehiena trenez egin zuten, nahiz eta uharteetara ferryetan joan. Italia oso garestia iruditu zitzaion Joni, baina hango bizi kalitatea hobea da. "Alde ederra dago Italiako eta Greziako trenen artean, Italiakoak ez daude batere gaizki, baina Grezian trenez ibiltzea..."

Jonendako, bidaiako gauza politenak bat Erroma bisitatzea izan zen. "Ez nuen uste horrelakoa izango zenik. Hiri handia denez, zikinagoa eta okerrago zainduta egongo zela uste nuen, baina ez da horrela. Hiri ikusgarria da, benetan polita". Han zeudela ezustea izan zuten. "Egun bat lehenago, Joan Paulo aita santua ikusteko aukera izango genuela esan ziguten; guk ez genien kasu handirik egin, baina hurrengo egunean, jende mordo artean, aita santua ikusi genuen, baina oso urrutitik ikusi ere".

Italiako hiriburuaz gain, Santorini uhartea, Venezia eta Meteora ez ditu saltzeko. Haiak ere derrigor bisitatzeko lekuak dira, nahiz eta bisita batekin nahikoa den. "Venezia badu zerbait berezia, baina han urte osoa bizi den pertsona batek komentatu zidan oso hiri tristea dela. Behelainoa dela eta, hiri hura ez da filmetan ikusten dugun modukoa; gainera, gondolan ibiltzeko 20 mila pezeta ordaindu behar dira".

XABIER URZELAI



Grezian dagoen Meteorako santutegi ikusgarria.

"Erroman geundela Joan Paulo aita santua ikusi genuen"

"Italian diru asko gastatu genuen, eta gero kontuz ibili behar"

ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32 1; I • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



Berogailua
Bainuen berrikuntza
Iturgintza

- Erantzun azkarra eta zure neurria
- Berogailuaren finantzazioa hilabeteko 10.000 pezetatik aurrera
- Salneurri liluragarriak

Loramendi, 2 behe. Tel.: 943 71 27 73 Mobila: 605 71 27 05

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Gero eta pertsona gehiagok izaten dituzte buru-gaixotasunak zahartzaroan.

Zahartzaroko dementzien gainean ikastaroa antolatu dute Saiolanen

IKER BARANDIARAN

Zahartzaroan sufri daitezkeen dementziak eta buru-gaixotasunak ugaritzen dabiltza azken urteetan. Horien artean alzheimer da ezagunena eta hedatuena, baina beste batzuk ere badaude. Horregatik, geroago eta talde gehiago arduratzen dira hirugarren adineko gaixoez, horrelako gaitzak sufritzen dituztenez, hain zuzen ere, baita, jakina, haiek zaintzen dituzten profesional edo senitatekoak hezteaz ere, horren premia handia dago-eta.

Helburu horrekin, Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak (ICTE) *Zahartzaroko dementzia eta alzheimer gaixotasuna* izeneko psikogeriatria ikastaroa antolatuko du. Ikastaroa azaroaren 12tik 16ra egingo da (biak barne), enpresa antolatzaileak Saiolanen, Nafarroa etorbidean, duen egoitzan. Batez ere, zaintzaileei, senideei, osasun alorreko langileei, etxez etxeko laguntzaileei, erresidentzietako

langileei eta ikasleei egongo da zuzenduta.

ALZHEIMERRA, HEDATUENA

Ikastaro horrek dementziaren eta buru-gaixotasunen alorrean zeresan handia izango du; hasie-

ra baten, burmuina zelan zahartzen den aztertuko dute, eta gero, dementzian oinarrituko dira, hau da, zergatik sortzen diren, zein sintoma dituzten eta zelan zaindu edo lagundu.

Horrez gain, alzheimer gaixotasunak tarte garrantzitsua izango du ikastaroan. "Gaitz hori da dementzia degeneratibo garrantzitsua, ezagunena eta ugariena. Gainera, momentuz ez dauka sendabiderik. Agian, hamar urte barru txertoa izango dugu, hala espero dugu; baina bitartean, horren inguruan lan handia egin beharra dago", azaldu zigun antolatzaileetako batek.

Gaixoa zelan zaindu oso garrantzitsua da, bai gaixoarendako baita zaintzailea bera trebatzeko ere. Hortik aurrera, psikoestimulazio programak bultzatu beharko dira, gaixoak burmuinean ahal den gutxien galdezan. Oso garrantzitsua izango da familiak gaixoaren egoera ondo ezagutzea, beronek inguruarekin harreman hobea izan dezan.

Adinduei zelan lagundu

Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioa (ICTE) hirugarren adineko gaiez arduratzen den kooperatiba da. Nafarroa etorbidean du egoitza institutuak. Zahartzaroko dementzien inguruko ikastaroen parte hartzeko 12.000 pezeta ordaindu beharko dituzte interesatuek. Informazio gehiago gura izanez gero, 943 771699 telefonora dei ezazue.

LABUR

Gipuzkoako Alzheimer Elkarteak, AFAGIK, egoitza berria izango du Arrasaten

Gipuzkoako Alzheimer Elkarteak, AFAGIK, egoitza irekiko du Mondragoen, Arrasate pasealekuan, Arrasate Irratiaren egoitza zaharrean, hain zuzen ere. Zerbitzu berri hori urriaren 22an zabalduko dute, eta alzheimerre dutenen senideek edozein informazio, babes edo laguntza mota behar izanez gero, hitzordua egin dezakete 655 711837 telefonora deituta.

Musakolako zahar etxekoek ibilaldia antolatu dute Errioxa aldea bisitatzera joateko

Musakolako zahar etxeko elkartekoei Errioxa aldea bisitatzeko ibilaldia antolatu dute urriaren 26rako, egubakoitzerako. Egoitzako bazkideek gaur arratsaldean izango dute izena emateko azkeneko aukera. 26an, goizeko 08:00etatik aurrera, Najera eta Santo Domingo bisitatu eta Biasterin primeran bazkalduko dute.

Gripearen aurkako txertoa hartzeko deialdia egin diete erretiratu eta adinduei

Arrasateko Osasun zerbitzuetako arduradunek dei berezia egin diete 65 urtetik gorakoei gripearen aurkako txertoa har dezaten, eurak dira-eta arrisku handiena daukatenak. Urriaren 31ra arte iraungo du gripearen aurkako kanpainak. Anbulatorioan edo auzo-alkateetxeetan har dezakete txertoa, edo etxean bertan, ezin badira irten.

ZAHARREN AHOTIK

David Arzamendi

SAN JUAN BAUTISTA PARROKIAKO ORGANISTA

Arrasatear peto-petoa da David Arzamendi. Toledon ezkondu zen, eta Cerrajeran egin zuen lan, baina organoa jotzeagatik da ezaguna.



Noiz hasi zinen musika jotzen?

1926an, Saturraranera joan nintzen, seminariora. Eta handik Gasteizera, latina, humanitateak eta filosofia ikastera. Han pianoa jotzen hasi nintzen nire kasa. Gerora, 1930ean, Elorrioko Dioniso Isasmendiarekin organoa ikasten hasi nintzen, eta 1932an hasi nintzen jotzen.

Ibilbide luzea duzu organista moduan, ezta?

Bai, hala da. 68 urte darmatzat organista moduan. 1932an, oporretan jotzen nuen. Gero, 1936an, Gasteizera sol-

daduska egitera joan eta domeketan San Migel parrokiari jotzen nuen, gerra bukatu arte. Handik alde egitean, San Migel parrokiako biziarteko bigarren organista izendatu ninduten hango abadeek. 1995ean, Arrasateko Udalak eta Aretxabaletako abesbatzak omenaldia egin zidaten.

CLUB
IYOLA

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 20 14



MEMESA

Industria
hornidurak

Tel. 943 71 24 25



ARRASATE
Asier Madinabeitia
Urriak 24an 24 urte.
Urriaren urteak bete dituztenendako, zuen koadrilaren partetik zorionak eta urte askotarako !!!



ARRASATE
Eneko Iturbe
Urriak 1ean 24 urte.



ARRASATE
Jon Perea
Urriak 10ean 23 urte.



ARRASATE
Galder Axpe
Urriak 7an 24 urte.



ARRASATE
Ainhoa Pagaldai
Urriak 30ean 27 urte. Urte askotarako! Koadrilakoak.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA













- Estudioa
- Erreportaiak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **urriaren 19tik 26ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzera arte jasoko dira ARRASATE PRESSEko egoitzan.



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**

**Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.**

IBAI ARTEK 500.000 PEZETA Zozketatuko DITU

Zatoz, erosi eta lor ezazu sari berezi hau

Gaur da eguna. Zatoz, gaur egubakoitza,
Herriko plazan, arratsaldeko 19:00etan.
Arrasateko Arku tiroketa taldearen eskutik.

Zorte on!!!

IBAI ARTEK 500.000 pezeta oparitzen dizkizu erosketak egiteko. Lor itzazu txartelak IBAI ARTEko dendetan.

AKADEMIAK

PARLANCE – Ferrerías, 11

JANARI DENDAK

EROSLE – Zerkaosteta, 16
FELI – Okendo, 3

ANIMALIA DENDAK

ARRASATE ZOO – Zarugalde 44

AHOLKULARITZAK

URRATS – Zarugalde 3

BANKETXEAK

EUSKADIKO KUTXA – Iturriotz 27
KUTXA – Maisu Arano 8
LA CAIXA – Garibai z/g

KAFETEGIAK/TABERNAK

ITZALA – Iturriotz 19
KAJOI – Erdiko Kale 20
LORATEGI – Iturriotz 7
MONTE – Maalako Errabala 2

HARATEGIAK

LANDALUZE – Iturriotz 7
OTAMENDI – Olarte

ALTZARIAK / APAINKETA

EHUNE – Garibai 8
ETXE MOBILIARIO – Ferrerías 17
EYA SUKALDEAK – Iñazio Zuloaga 4

KIROL DENDAK

OKENDO KIROLAK – Maalako Errabala 13
URRIARTE SPORT – Olarte 6

LURRINDEGIAK

ALTUNA – Maalako Errabala 19
LORE – Olarte 10

ZABALETA – Maisu Arano 2
ZARRAOA – Kanpatorpea 4

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

ARANZABAL – Iturriotz 15
EYA – Iturriotz 21
ELKORO EXPERT – Olarte 20
ETXE LAN – Otalora lizentziaduna 14
MILAR ELKORO – Olarte 1

ARTE ETA ENMARKAZIOAK

ARREGI – Maalako Errabala 8
ARTEA – Ferrerías 11

BURDINDEGIAK

ALDEDI – Biteri 8

LORADENDAK

OHIANA – Arrasate pasealekua 8

INPRIMATEGIAK

JG IMPRESION DIGITAL – Arrasate pasealekua 2

ARGAZKI DENDAK

EPELDE – Maisu Arano 8
FOTO IMAGEN – Zerkaosteta 5
IKATZ – Iturriotz 8
JUANMA – Iturriotz 21

IZOKITEGIAK

IZOKITEGI – Iturriotz 7

INMOBILIARIARI

ANBOTO – Iturriotz 11

BITXITEGIAK

ZUBIAGA – Maalako Errabala 5

JOSTAILUAK

ZUR-LUR – Erdiko Kale 19

LENTZERIAK

BEA – Otalora 21
NEREA – Erdiko Kale 28
SIKOL – Olarte 31
TITARE – Olarte 6

MERTZERIAK

CECIAGA – Maala 13

OPTIKAK

GARAGORRI – Iturriotz 29

LIBURU DENDAK

HIPE – Iturriotz 4

PAPER DENDAK

TAMAYO – Ferrerías 32

ARRANDEGIAK

TOMAS – Olarte 3

PRENTSA ETA ALDIZKARIAK

KIOSKO PORTALON – M. Arano 3

OPARI DENDAK

BEINKE – Arbolapeta
GALERIA 44 – Zerkaosteta 8

OIHALAK

LILURA – Zerkaosteta 5

JANTZI DENDAK

BELEM – Olarte 6
CONFECCIONES MAZA – Erdiko Kale 1
FLASH – Iturriotz 14
GILI-GILI – Iturriotz 9
HAURTXOA – Arrasate p. 4
KILI KOLO – Ferrerías 21
KLAS – Iturriotz 23
LAKET – Otalora z/g

LASAGABASTER – Zerkaosteta 1
LOS VAQUEROS – Zerkaosteta 3-5
LUKO – Erdiko Kale 32
MABEL – Juan Carlos Guerra 2
MARKIEGI – Olarte 2
MODAS MARGA – Iturriotz 21
TROKO – Erdiko Kale 14
UME – Garibai 6
ZR – Olarte 10

OINETAKOAK

BEATRIZ – Erdiko Kale 11
EGIZABAL – Olarte 14
ALONSO – Zeharkale estalia 2
TOTEM – Zarugalde 14
TXUNTXURUNBERDE – Maala 23
ZUBIA – Biteri 1

BIDAIK

EROSKI BIDAIK – Maisu Arano 8

GOZOTEGIAK

HEMEN – Seber Altube 8
MURUAMENDIARAZ – Erdiko Kale 28
ONANDIA – Iturriotz 11

ASEGURUAK

SEGUROS ELORZA – Erdiko Kale

BAZARRAK

TOKION – Erdiko Kale 7

ARTILE DENDAK

PHILDAR – Juan Carlos Guerra 1

BIDEO-KLUBAK

V.C. UDALAITZ – Kontzezino 16

Ibai Artek tratu pertsonalizatua eta profesionala eskaintzen dizu. Arrasateko merkataritza etxe handiena.

Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko urriaren 26a / 2. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com


Atzera ere entzun ahal izango dira San Martin parrokiako organoaren soinuak

UBANE MADERA

la 50 urte eta gero, berriro ere entzun ahal izango da San Martin parrokiako organoaren doinua. Uztailean hasi ziren konpontzen eta oraingo astean bukatu dute. Datorren azaroaren 24 eta 25ean inauguratuko dute; munduko organistarik bikainenetakoa etorriko da.

1954. urte inguruan isildu zen San Martineko organoa, egin eta 120 urte ingurura. 1832. urtekoa da, eta hainbeste urtek eraginda, konponketa sakona behar zuen. Eta horretan ibili dira azken hiru hilabeteotan. Ez da lan makala izan; ia organo osoa desmuntatu dute eta piezak banan-banan ikusi. Zortziehun bat hodi ditu eta guztiak puntuan ipintzeko ahal-egia handia egin dute.

Bederatzi milioi pezetako inbertsioa egin dute Arabako Foru Aldundiak, Udalak eta parrokiak konponketa guztiak egiteko. Eta orain, Santa Zezilia Egunaren inguruan inauguratuko dute On Bixente Goikoetxea Aramaioko seme eta musikariak. Oihartzabalen kontzertuak izango dira. Gainera, Victor Mendialduari, parrokiako betiko organistari, omenaldia egingo diote.



1832. urtekoa da organoa. Organo horrekin egin zituen ikasketak On Bixente Goikoetxea Aramaioko seme eta musikariak.

Kontzertuak emango dituzte horretarako, azaroaren 24an eta 25ean. Besteak beste, 24an, Sevillako organista etorriko da, Jose Enrique Ayarra, mundu-

ko organistarik bikainenetakoa. Domekan, berriz, Sabin Salaberria eta Floren Untzueta Aramaioko semeen, herriko abesbatzaren eta Gasteizko Daniel

Oihartzabalen kontzertuak izango dira. Gainera, Victor Mendialduari, parrokiako betiko organistari, omenaldia egingo diote.

1954. urte inguruan egin zuen San Martin parrokiako organoak azken joaldia

Bederatzi milioi pezetako inbertsioa egin dute Aldundiak, Udalak eta parrokiak

Inauguraziora munduko organistarik bikainenetakoa etorriko da

HERRITARREN HITZA / Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

Euskarak egiten gaitu euskaldun

Zuen arteko norbaitek zertara datorren guztiok dakigun kontu hau esango du. Noizbehinka gogora ekartea garrantzitsua delako. Euskaldunok argi izan behar ditugu ideiak. Orain gutxi goiko politikari batek 3 direla gure hizkuntzak (euskarra, gaztelania eta frantsesa) esan zuen. Gauza bat da gure artean hirurak egiten direla aitortzea, eta beste bat "gureak" direla esatea.

Argi esan behar dugu gure berezko hizkuntza euskara dugula, gaur egun gutxien batzuen hizkuntza bada ere.

Euskarak eman dio izena eta izana Euskal Herriari. Euskara barik, gehienez ere, "baskoak" ginatke. Honako hau ere gogoan hartu behar dugu: euskara erabilten dugun neurrian garela euskaldun. Eta, erdara erabilten dugun adinean erdaldun. Gure arteko erdaldunak onartu beharra dugu, baina euskarak egiten gaituela euskaldun



"Euskara barik, baskoak izango ginatke"

ahaztu barik. Urri honen 18an Bizkaiako Foru Aldundiak ahozko euskara bultzatzeko *Berbarik onena zeurea* kanpainari ekin dio. Bertan hau gogoratzen die bizkaitar euskaldunei: "egiten daben euskerea harrotasunez erabiltea gura dogu; euskararik onena erabilten dana dala gogoratu gura deutsegu". Xabier Eguzkitzak beste hau bertotan: "Zer

nolako zortea, gure hizkuntzarena. Mila iturritatik, edaten duena. Euskararik onena, da norberarena; eta txarrena egiten ez dena". Beraz, Euskarak bizirik irautea gura badugu, erabili egin behar dugu!

Termitek etxerik ederrenari barrua jaten dioten moduan jaten diote erdarek euskarari. Kontuz ibili ezik, usterik gutxien dugunean hondatuko da gure etxe hau. Bat-batean "erdaldun" bihurtu gara. Eta, non izango dugu gure "Euskal" Herria? Gaurkoz nahikoa. Agur t'erdi.

LABUR

Oraingo astean, ur biltegia hustu dute lanak egiteko

Ibarrako ur horniketa sarean egindako hobekuntza lanen barruan, ur biltegian ere lan batzuk egin behar izan dituzte. Horretarako, ur biltegia hustu egin behar izan dute oraingo astean; ondorioz, etxebizitzetara iritsi den ur kantitatean eta presioan arazoak izan dira. Era berean, Udalak gomendatu du ez edatea txorroko urrik, kontsumorako erabiltzen den urak ez du-eta osasun baldintzarik betetzen.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Osasun Etxea	943 76 24 40
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak	943 76 51 06

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
	20:30	20:45
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

OSOKO BILKURA

Urriari dagokion osoko bilkura eguaztanean egin zuten. Landu zituzten gaien artean, datorren ekitaldirako (2002-2003) obretarako inbertsio plana aztertu zuten, hau da, Arabako Foru Aldundiak lanak egiteko eskaintzen dituen dirulaguntzak.

Horrez gain, ehiza babeslekuen esleipena ere landu zuen udalbatzarrek.

ERROLDA EGUNERATZEN

Gainerako herrietan egiten ari diren moduan, Aramaion ere errola berritzen hasiko da Udala. Horretarako, langile bat kontratatu du: Nekane Arana; eta hura etxez etxe joan beharko da datuak eguneratzeko. Hortaz, Udalak mesedez eskatzen die herritarrei etxebizitzetako atea zabaltzeko. Nekaneri, ezinbestekoa da eta errolarako datu berriak batzea. Bost urtean behin berritzen dute errola, eta, adibidez, hauteskundeetarako derrigorrezkoa da datuak eguneratuta izatea.

GIZARTEA

Erretiratuen Eguna ospatuko dute San Martin Sendi elkartearen eskutik

Erretiratuen Eguna izango da Aramaion bihar. Ospatzeko, goizean herriko txistulariak eta trikitilariak kalejiran irtengo dira. 12:00etan, berriz, meza izango da urtean hil diren erretiratuen alde. Gero, Lagun Artean dantza taldeak dantza saioa eskainiko du. Bitartean, 12:00etatik 14:00etara, baserriarren eta artisauen erakusketa eta salmenta izango da; Nardeaga kalean eguraldi ona bada eta kiroldegian txarra bada. Era berean, Ibarrako elkarteek salda eta txorizoa emango diete erretiratuei. 14:30ean, berriz, trikitilariak alaitutako bazkaria izango da ikastolako jangelan; herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta. Eta han opariak banatuko dituzte; herriko nagusienek opari berezia izango dute.



BERTAKOKONTUAK

IPIUÑ FANTASTIKUE

Da kontetan san be e kobetan egoten siela ta egundoko musika eta sea pandereta jotzen, da beñ andra bat itxurie ba apur baten da urten auela sorgiñ batek eta sorgiñ orrek emun tzen txarrantxa bat urreskue. Ta esan tzen: "kondisiño bateas emuten dutzut, atzera begiketaren bosu kendu ingo tzut!" Eta andriorek artu auen txarrantxie, siñistu esinñde juen san etxea. "Baiñe bueno selan emun leikien berai urresko txarrantxa!" Eta oien poliki poliki eta etxea juen san, sabaldu auen atie, anka bat ipiñi auen barruen, bestie ondikon kanpuen auken, da begittu auen atzera eta kendu in tzen txarrantxiói".

PATXIKE IBABEK kontatutakoa; Uribarri auzoko Zubieta, "Zubite" baserrikoa.

(Mendi edo koba-zulo batera eramandako pertsonaje fantastiko bakarra Patxike Ibabek kontatutako hauxe dugu)

BOTEPRONTOAN/ Arantza Ozaeta eta Divina Arriolabengoa · Aramaioarrak

"Orain, ezkaratzetara irratia eta telebista sartu dira. Beharrezkoa zen tradizioa jasotzea"

Herriko ipuinak eta legendak batzen ibili dira Divina Arriolabengoa eta Arantza Ozaeta aramaioarrak; eta gu lan hori poliki-poliki argitaratzen joango gara *Bertako kontuak* sailean. Hori bai, lehenengo, lanaren nondik norakoak kontatzeko eskatu diegu:

Zer dela eta lan hau?

A: Ikusten da tradizioa desagertzen dabilela, batetik, modernizazioa sartzen ari delako, eta bestetik, ahozko narrazioa ere galtzen dabilelako. Narratzaile asko hil egin dira eta ahuldu egin da testuingurua: ipuinak eta legendak kontatzen ziren elurteetan, auzo lanetan... Orain, ezkaratzetara irratia eta telebista sartu dira, eta beharrezkoa zen tradizioa jasotzea.

D: Hori bai, baina baita lana gustuko dugulako ere. Zaharrek egotea eta ipuinak eta literatura kontuak entzutea biendako da atsegina.

Zelan egin duzue lana?

D: Udalak beka atera zuen, eta eskuratu egin genuen. Abadeak herriko nagusien zerrenda egin zuten, eta hortik abiatuta banan-banan euren gana jo dugu. Arratsalde pasa egiten genuen eurekin, oso gustura, gainera.

A: Abadeak egindako zerrendatik hasi ginen, abadeak eta medikuak direlako ondoen dakitenak pertsona nagusien berri. Gu saiatu ginen zerrenda hori orekatzen eta auzo guztietara joaten. Eta fruitu onak eman ditu, gainera. Ikusi dugu geografiak eragina duela



ipuinetan: Arexolan, Gantzagan eta Arriolan kontatzen diren ipuinak, adibidez, haitzarekin lotuta daude; eta, aldiz, Suñan eta Untzillan daudenek ez dute ezagutzen horrelakorik, eurek dragoiak ipuinak ezagutzen dituzte.

D: Behin galdeketa bukatuta transkripzioa egin dugu eta Barandiaranen inkestaren arabera egin dugu lana.

Zein da ipuinik gustukoena?

A: Denak, ez dago aukeratzetik, baina niri hontzarena asko gustatzen zait.

D: Umeei kontatzen zaizkien ipuinak oso politak dira, animalien gaineko kontakizunak ere, eta Anbotoko Señoria-rena izugarri gustatu zait... ezin da aukeratu.



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42 • Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



GIDARI ESKOLA

Garibai, 5
Tel.: 943 792296
ARRASATE

Basabe ind. FO-7
Tel.: 943 796450
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Lehengo azoka plazaren
irudi bat, Seberren

Orain dela gutxi Seberren komun berria ipini dutela eta, herritar bat baino gehiago akordatu da han bertan egon ziren komun zaharrekin. Zabalik zeuden, ate barik, hortaz, gizonezkoek erabiltzen zituzten bakarrik. Argazkiari begiratuz gero, atzealdean, eskuman, ageri direnak dira komunak, erdi ezkutuan daudenak, San Frantziskoko horman.

Bestela, ikusten den moduan, argazkiak azoka egun bat erakusten du. 1940-50eko hamarkadan, Seberren egiten zuten, "Verduling Dantzing"en. Domeka izaten zen eguna, eta horixe egiten zuten baserritarrek. Argazki-koak ere horretara joan ziren egun hartan. Ezkerrekoa Conchita Markaide da, eta

eskumakoa Rufina Gallastegi, biak Uribarriko Oliba baserrikoak. Batez ere, esnea saltzen zuten. Egunero egiten zuten hori, etxez etxe. Marmitetan garraiatzen zuten esnea, eta edalontziekin hartzen zioten neurria. Litro bateko, litro erdiko eta hiru laurdeneko edalontziak erabiltzen zituzten. Batek baino gehiagok esaten zuen esne bantzaileak kontakatilu hutsak zirela, etxez etxe ibiltzean kontu guztiak zekizkitelako. Garai hartan, baserritar asko astoarekin etortzen ziren herrira. Eta herrian zeuden bitartean, orain Etxoste taberna dagoen inguruan uzten zituzten lotuta.

Argazkia: Espe Lizarralde
Informazioa: Espe Lizarralde
Urtea: 1940-50eko hamarkada



NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Portaloia
mende erdi
pasa eta gero

Orain dela berrogeita hiru urte, Arrasateko Portaloia eta lehengo Mola Jenerala plaza zenak itxura hau zeukaten. Sasoi hartan, ez zegoen gaur adina banketxe automobil eta dendarik. Horrez gain, eguzkiak ederki jotzen zuen Portaloian, oraindik ez zegoen eta zuhaitzik. Ezkerreko argazkian Mondragoeko harresia ikus daiteke; orain, Kutzako bulegoak daude han.



± 1958 Eskuinean dagoen automobiletik gertu gasolindegia zegoen. 1985. urteko martxoan kendu zuten.




2001 Gaur egun, oinezkoendako gune bihurtu da Portaloia. Zuhaitzek itzal ederra ematen dute, eta era berean, eserlekuak zeresana eman dute.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ALDEDI

MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Haizetakoak 1,46 m².

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berrian garrantzitsuen ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaia altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g
Tel.: 943 79 50 71
ARRASATE

307 
PEUGEOT

GRUPO **RKUZ** 1950-2001



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.
Eskerrik asko emandako konfiantzagaratik